



ZESTOAKO UDALA

## **AKTA**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko maiatzaren 15ean buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita bii, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.- Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2018ko apirilaren 26an buruturiko saioari dagokion akta.

2.- A.A.U., gaztetxearen kanpoan lagata zituzten aulkiak bueltan jasotzeko eskaera egiten du. Erabaki da ondorengo jakinaraztea: lehenik eta behin, 2018ko Santa Kutzetako danborradan erabilitako karroza, kultur etxe kanpoan utzita dagoena, erretiratu beharko da. Horretarako, Udalak bi egunetako epea jartzen dio Gazteen Asanbladari, jakinarazpena jasotako egunetik kontatzen hasita. (*Jakinarazpen hau igortzerako karroza kenduta dago*). Bestalde, aulkien gaiaritzeko, Udala Gazte Asanbladako kideekin bilduko da.

3.- I.S.I., bi eskaera egiten ditu: 1.- Zestoako Udalak hurrengo arau subsidiarioen berrikuspenean 21-030 lursailean nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko kategoria mugaketa aldatzea, gunehori barneratuz. 2.- Zestoako Udalak Foru Aldundiko Landa Eremuko Sailari adieraztea, NBPLSek ahalbidetzen duen ezohikotasun ahalmenaren bidez, Joseba Urkizu jaunak egiten duen ikuilu eraikitze eskaera onar dezala. Ondorengo erabakiak hartu dira: Zestoako Udalak hurrengo arauen berrikuspenean NBPLSren basogintza kalifikazioaren aldaketa proposatuko du eta Zestoako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Eremuko Sailari proposatuko dio azter dezala NBPLSek ahalbidetzen duen ezohikotasuna aplikatzea.

4.- J.A.A., Gesalaga kalea 5ean dagoen A. kafetegia zenean obrak egiteko udal baimena eskatzen du (pintatu, sarrerako bigarren atea kendu eta kanpoko toldoari lona aldatu). Ondorengo erabakiak hartu dira: obrak egiteko udal baimena ematea (pintatzeko eta kanpoko toldoari lona aldatzeko) eta darrerako bigarren atea kentzeko ez da baimenik ematen, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

5.- J.A.A., Gesalaga kalea 5ean, lehen A. kafetegia zen kanpoaldean terraza jartzeko (lehengo baldintza berdinetan) udal baimena eskatzen du. Erabaki da hurrengo Hirigintza Batzordean aztertzea gaia.

6.- J.O.A.ri, Marduxarra kalea 6 etxeko balkoiko barandilla herdoilduta dutela eta, berria jartzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

7.- T.L.S.Lri, estandarrak betetzeko fatxadaren aldaketa eskatzen dietela eta, Estazioko industrialdean duen pabiloiko fatxadari gaineratik txapazko estalki berria jartzeko eta teilatuan konponketa lanak egiteko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

8.- A.I.L.ri, Arretxe plaza 1-2ko fatxadaren konponketak egiteko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

9.- Alegiako Udalari, 2018ko uztailearen 17tik 22ra Zestoako futbol zelaia erabiltzeko udal baimena emateak, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

10.- J.J.A.E, autobus geltokietan espaloi handiegiak daudela dio. Bera elbarritua dela eta moto elektrikoarekin ezin duela espaloi horietara igo dio; ondorioz, ezin du autobusez bidaiatu. Erabaki da jakinaraztea Zestoako Udala jakitun dela Olaeta kalearen ondoan dagoen autobus geltokiak gabezia batzuk dituela segurtasun eta osasun arloan. Honegatik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide sailarekin harremanetan dago eta proposamen ezberdinak lantzen ari dira. GI-631 errepidearen kopetentzia administrazio horri dagokio.

11.- A.U.I., Etorrabidean, Zabaletatik gora, orain arte pinua zegoela dio. Orain pinua bota dutela eta zati batean, errebuelta ezkerretara doanean, arriskutsua dagoela iruditzen zaio. Horrela, bionda jartzeko eskaera egiten du. Erabaki da jakinaraztea Etorrabideako errebuelta honetan 50 metro luzerako bionda jartzeko aurrekontua eskatuko zaiola lan honetan ibiltzen den enpresa bati. Aurrekontua eduki ondoren, udalak erabakiko du zer egin.

12.- J.M.I.G., bere etxe beheko janari dendak sortzen dituen zaratekin arazoak dituztela eta irtenbidea bilatzeko neurriak hartzea eskatzen du. Erabaki da hurrengo Hirigintza Batzordean aztertzea gaia.

13.- Gipuzkoako EHNEk, etxebizitzei EITa pasatzeko dekretu berria indarrean sartu aurretik, hainbat eskaera egiten ditu: baserriei EITa egitera ez derrigortzea; Gobernu Batzarrean gaia lantzea eta EUDELeko Gipuzkoako Lurralde Batzordeko kide zarten udalek, hala nola, Beasain, Elgoibar, Donostia, Aia, Zestoa, Oñati, Elgeta, Azpeitia eta Eibar, gai hau bertan lantzeko konpromisoa hartzea eta beraiekin bat egitea dekretu berrian baserriei goialdean aipatutako salbuespenak ezartzeko lanketan.

Ondorengo erabakiak hartu dira:

Lehena.- Gaur egun indarrean dagoen legediak baserriei EITa egitea derrigortzen die, eta Zestoako Udalak ezin du legedi hori salbuetsi.

Bigarrena.- Hirigintza batzordea oso kritikoa da gaur egun legediak ezartzen duen derrigortasunarekin, eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailera ere idatziak bidali dira Zestoako Udaletik baserriei EIT egitea salbuesteko.

Hirugarrena.- Zestoako Udalak bat egiten du dekretu berrian baserriei ENHEren idatzian aipaturiko salbuespenak ezartzeko lanketan.

14.- M.J.A.S., Lasako komunak seinalizatzeko eskaera egiten du. Azpeitiko bidegorritik iristen den jendea galdezka ibiltzen dela eta hiru kartel jartzea proposatzen du: bidegorri bukaerako zebrabide inguruan, "Gureakeko" eraikinean frontoi aldeko sarreran eta komunetako paretean. Ondorengo erabakiak hartu dira: komunak seinalizatzeko eskaturiko 3 seinaleak jartzea onartzea eta udal brigadarekin aztertzea 3 seinaleak zein euskarritan eta nola jarri.

15.- M.J.A.S., Lasako frontoian itukinak daudela dio, seigarren koadro inguruan putzua egiten da. Erabaki da jakinaraztea Udalak Lasako frontoian beste konponketa batzuk egiteko plataforma jasotzailea eraman behar duela. Plataforma honekin, teilatura igo eta beharrezko konponketa lanak egingo dira itukina konpontzeko.

16.- E.S.A., Azkue industrialdean pon sarea hedatzeko proiektua aurkezten du eta hainbat kanalizazio egiteko obra baimena eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea ezin dela obra baimenik eman, E.k proposatutako zutabeek GI-631 errepidean egitea aurreikusten diren obretan eragina izan dezaketelako. Bestalde, E.S.A. enpresako teknikariak udal bulego teknikoarekin harremanetan jarri eta beste aukerak aztertzea

proposatzen da.

17.- Itelazpik, Zestoako Endoia auzoan duen telekomunikazio zentroaren jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea aurkeztutako dokumentazioa.

18.- M.K.G.,Arroa Beheko L.tabernako jabea aldatu dela dio eta galdetzen du ea Udalak horren berri baduen. Bestalde, gogorarazten du terrazan mahaiak jartzeko mugak daudela eta jabeak hori jakin

behar duela. Erabaki da tabernako titular berriari araudiaren berri ematea.

19.- A.I., Eziola kalea 4 eta Euskal Herria Plaza 2-3ko garajeetara jeisteko aldapa oso berdea eta irristakorra dagoela eta, Udalari aldapa garbitzeko eskatzen dio. Puntu hau aurreko Hirigintza Batzordean argitzekotan geratu zen, hau da, Birpartzelazio Proiektua begiratzekotan. Erabaki da jakinaraztea UE.R.1/2 Exekuzio Unitatearen Birpartzelazioaren barruan aurkitzen dela aldapa hori eta birpartzelazio plana kontsultatu ondoren, Udal honek ziurtatu du aldapa jabetza pribatukoa dela. Bestalde, komunitateari dagokio aldaparen kontserbazioa; beraz, Udalak ez du garbiketarik egingo.

### **Batzorde informatiboen bileren akten onarpena**

2018ko maiatzaren 10ean, Kultura eta Euskara Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

**Alkatetza ebazpenak**- Honako Ebazpenen berri eman da:

\* 40 zk, E.S.L. enpresari udal jabetzako baso pista eta bideen erabilera berezia egiteko lizentzia ematen zaio.

\* 41 zk, X.M.S. eta A.E.I.ri Txiribogako K. baserriaren egokitzapenerako egiten ari diren obra baimena ren indarraldia luzatzen zaie 2018ko abenduaren 31 arte.

\* 42 zk, P.K.E.i Erdikalea 7 behe oineko taberneko komunean proposaturiko egokitzapena egieko baimena ematen zaio.

**Galdera eta erreguak.** Ez da egon

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an

Idazkaria,

O.e

Alkateak,